

KONTROL MOZIOA

Gizarte Ekintzako zerbitzuaren egoeraz eta langileen baldintzez

Izar Hernando Ibero EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko apirilaren 10ean Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailetik mobilizazio dinamika garatzen ari dira Donostiako Gizarte Ekintzako langileak, martxoan eta apirilean lanuzte zein greba deialdiak aurrera eramanda. Hasieratik, mobilizazio dinamikek saileko langileen babes zabala jaso dute; izan ere, mahaigaineratutako eskari eta aldarrikapenak ez dira berriak, sailaren saturazio salaketa berria ez den bezala. Are, 2017an jada antzeman zen departamentuko langileen osasunerako arriskua handia zela, gehiegizko lan-kargaren ondorioz. Tamalez, geroztik egoerak ez du hobera egin, eta gizarte zerbitzuetako eskaria asko igo den bitartean, plantillaren zabalpena ez da hurbildu ere egiten eskariaren igoerara. Zentzu horretan, langileek adierazten dute dituzten baliabideekin “zaugarritasun egoeran dauden pertsonen oinarritzko eskubideak ezin direla bermatu”; kasu askotan, zerbitzuetara herritarrek egindako deiek ez dute erantzunik jasotzen, hitzordua izateko asteak itxaron behar izaten dira, laguntza ekonomikoak jasotzeko atzerapenak, haurtzaroko kasuei behar duten jarraipena emateko ezintasuna... Langileek pairatzen duten lan-karga gehiegizko honek inpaktu zuzena du Gizarte Zerbitzuetara jotzen duen edozein herritarrek jasotzen duen arretan, eta egoera kezkagarria da oso.

Hala nola, egitura eta antolakuntza beharren azterketa egitea eskatu dute langileek, neurriak hartu ahal izateko: baliabide material gehiago ezartzea, profesionalen araberrako ratioa murriztea, kudeaketak pertsonen beharrei

lehentasuna ematea eta arlo guztietako lantaldeak handitzea, hain zuzen ere. Eskari hauek Donostia bezalako hiri zahartu batean eta bizi dugun ziurgabetasun handiko egoeraren testuinguruan irakurri behar direla uste dugu, non behar sozioekonomikoak ugariak diren eta gizarte politikek paper protagonista hartu behar duten. Gizarte zerbitzuak jada donostiarrok gehien erabiltzen ditugun udal-zerbitzu publikoak bilakatu dira, eta horrek, ongizatean neurriko inbertsioak zein berrantolaketak egitea eskatzen du.

Hori horrela, gizarte zerbitzuen kalitatea hobetzeko erabakiak hartu behar dira, eta gizarte zerbitzuetako langileak zaindu. Norabide horretan, epe motzeko zein epe luzera begirako neurriak konbinatu behar direla uste dugu. Epe ertain edo luzeari dagokionean, zinegotzi delegatuak hartua du 2026ra begira Gizarte Ekintzako kontratazioak lehenesteko konpromisoa; era berean, langileek osatua eta zinegotziori aurkeztua digute Gizarte Ekintzan egin beharreko hobekuntzen zerrenda. Ondorioz, epe ertainera begirako plantillaren zabalpena eta berrantolaketak langileekin batera diseinatutako eta hausnartutako oinarri adostuak behar dituela uste dugu. Epe motzari dagokionean, berriz, langileen lan-karga arinduko duen kontratazioa ezinbestekoa da, are gehiago uda berehala iritsiko dela kontuan hartuz. Kontrataziorako formulak posible dira gaur-gaurkoz, ekonomikoki eta juridikoki horretarako aukerak badaude; honek, jakina, ongizatea lehenesteko erabakia hartzea suposatuko luke.

Hori horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Gizarte Ekintzako baliabide profesionalak urgentziaz handitu ditzala, aurtengo berehalako beharrei erantzuteko.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Gizarte Ekintzako profesionalen oporrak ordezkatu ditzala, lana gehiago pilatu ez dadin eta atentzioa gehiago saturatu ez dadin.



EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia
IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
10655n I 2011-06



- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari kontrataziorako eta berrantolaketakarako urte anitzeko plana osatu dezala, horretarako, langileekin negoziazio mahaia sortuz eta 2026an plantilla handitzeko lan eskaintza abiatuz.

Donostian, 2025eko apirilaren 16a



Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia